

men abangoardia». Estoniar jende moltxo bat irten zen karrikara Parisen okasioa profitatuz, eta barreia zitezen poliziaren gonbiteari baten erantzuna: «Ez da manifestaldi bat, jende asko dagoela eta dibertitzera etorri gara».

Etxean, geroz eta bakarrago antzematen da Gorbi. Baina, kanporakoan ere, zein ordezkaten du, egun? Ez errusiarrak ere, zeinen presidentea, Boris Ieltsin, instituzio zentralen indartzearen aurka mintzatu bait da, eta Ukrainakoarekin —Moskuren azpi eta gainetik— tratado bilateral bat sinatu bait du. Orain, Nobel sariduna laster Japona joatekoa bait da, Ieltsinek esan du, ez duela utziko berak, Gorbaxovek Tokiorekin Kurileei buruz negoziatu dezan, «irla horiek Errusiar Federaziokoak bait dira»...

ARGIA egunean hauteskundeak dituzte Polonian (Walesa faborito), eta lehengo astean Mazedonian eta Bosnia-Herzegovinan izandakoen berri iritsi zaigu. Mazedoniako botoa (bel-durragatik edo dena dela) Jugoslaviako batasunaren aldekotzat interpretata badaiteke, Errepublika musulmanean hauteskundeak populazioaren zentsu etnikoaren ispilu gertatu dira: musulmanak bizi diren distriktuetan (40) berak nagusitu dira, serbiarretan serbiarrek (35) eta kroaziarrak beste 16tan. Estatu hauskor hartatixe P.K. zaharraren oinarritzat hartu nahi den Partidu Komunista berri baten hotsa heldu da egunotan: Veljko Kadijevic, defentsa ministroa (jenerala bera), Blagoje Adzic, Estatu Nagusiko burua eta beste zenbait tamaina horretako mandok proiektuaren alde egin dute publikoki berba.

Golkoan, interbentzio militarra onets dezakeen NBEaren ostiral honetako batzarrea izanen da notizia.

Pablo Sastre

Esloveniak ere bai

SERBIA da, Jugoslavia osatzen duten sei Errepubliken artean, nolazpaiteko batasunaren alde agertzen den bakarra. Eta lider bakar bat ere mintzo da lotsarik gabe separatismoaren aurka: Slobodan Misolevic, serbiarra.

Antzinako joerari helduz, Serbiak bihurtu nahi du berriro mendebaltar eslaviarren jendarmea; bigarren mailakotzat jotzen dituen bizi-lagunak Belgradoko «bide zuzenera» erakarriz...

Arazoa gero eta larriago bihurtzen ari da. Dagoeneko burujabetasuna (independentzia, alegia) eskatua dute Kroaziak, Mazedoniak eta Esloveniak. Kosovoko separatistek (eta kosovarrak eslaviarrak ere ez direla gogoratuko dugu) argi-eta-garbi eskatzen dute Jugoslaviatik irten eta Albania askatuan sartzea.

Leku faltaz ez ditugu Montenegro eta Bosnia-Herzegovina Errepublikak luzeago aipatzen.


Jende kopuruaz txiki xamarra den Eslovenia (bi milioi lagun, zenbakiak borobilduz), ekonomikoki aurreratuena eta pentsakeraz mendebaltarrena, Belgradetik oso hantura osoan dago; Kroaziarekin batera berezi nahiaren zuzia hartu duelarik. Eta ondoko asteotan ere, zalantzarik gabe, gertakari garrantzitsuek astinduko dute Belgrado-Ljubljana lokarri ahula; joan den urriko asteetan zakarki inarrosi duten bezalaxe.

Urriaren 2an, Esloveniako lehendakaria den Milan Kucan-ek oso goraki eta telebista-katetik beretik, hau adierazi zuen lau haizeetara: «Esloveniako armadak ez dauka zertan obeditu beharrik Belgradotik inposatutako inor. Aurrerakoan ni neu izango naiz, Esloveniako lehendakaria naizenez, esloveniar armadako buruzagia».

Handik bi egunetara, Ljubljanaiko parlamentuak, bere aldetik, jugoslaviar lege-mordo bat baliogabetu zuen (30 lege federal). Bozketa-aren balioa nekez jar zitekeen zalantzatan: 209 deputatu legeen deuseztapenaren alde, 2 deputatu kontra, eta abstentzio bat...

Belgradok ezin zezakeen hori guztia aisa irents. Eta urriaren 5ean, aginte federalaren izenean, okupatu egin zuen jugoslaviar armada federalak, Esloveniako buruzagitza militarra.

Esloveniarrek orduan, erantzun gisa, Autodeterminazio prozesua azaro honetantxe bideratzea proposatu zioten herriari. Eta egun hauetantxe, garbiki azaldu ez diren arrazoinengatik, luzapen bat proposatu dute Ljubljanaiko separatistek: Autodeterminazioa 1991eko urtarrilean erabakitzea. Helburua: Jugoslaviatik osotara irten, eta Eslovenia Askatua sortzea.



TXILLARDEGI